

MAITEAREN NEGARRA

ANTZEZTOKIA:—Basotxono (ermita) bat landa orlegiz inguratua.

ANTZESLARIAK:—Mari-Josepa 50 urtedun emakumia.
Martatxu 20 » neskatilla.
Anton 25 » mutilla.

* * *

MARTATXU neskatillak bere biotzaren atsekabea bertsoetan azaltzen dau.

Eskumendiko artzañak
maite nindula
iñustan.

Aren berba leun gozoa
aizeak eroan
eustan.

Aste bi igaro dira
nire maitea
il dala.

Gure amesen lora guriak
guztiak igartu
dira.

Lañoak berantza datoz;
izarrak ostendu
dira.

Ilargi mosu zabalak
argi eztau egin
gura.

Itxasoan ur gazia
beastunean
mingotsa.

Nire bioztxu gaxoan
arantzearen
arantza.

Tamalez naiz tamalez
ez daukot
alaitasunik.

Maitearen eriotza
gomutan daukot
bizirik.

Len pozez etorten nintzan
irak ebaten
mendira.

Gaur barriz negarrez nago
ardi zurieri
begira.

Eskumendiko artzañak
maite nindula
iñustan.

Aren berba leun gozoa
aizeak eroan
eustan...

MARTATXU'K:—Jose Mikel zintzo-zintzoak, nire senargai maiteak... maite nindula inñustan, bai... Orain baña bere berba leun gozoa, geyago ez dot entzungo... Ezta bere txistu zolliaren doñu politik bere... Beraz... nire amesaen lora guztiak osoan igartu dira... Au atsekabea!!!

(Ta ori esanaz, arri-mokil baten esarrita, esku biakaz arpegia ezaltzen dau negarrez. Onetan, mutik gazte lerden bat agertzen da ta mutil gaztiak Martatxuri itz legunez itz egiten dautso).

ANTON'EK:—Martatxu... Orain bere negarrez...? Jose Mikel betiko juan zan. Beraz, beste asmo bat artu bear dozu... Orra ba... aren lekua betetuteko emen naukozu neu...

MARTATXU'K:—Zoaz emetik, Anton, nik inñor ez dot bear-eta. Nire biotzean Jose Mikel'entzat izan dan lekua inñortxok bere ezin leike betetu-ta.

(Orduan mutilak sakeletik txistu polit bat ataraten dau, ta neskatillari itz legunez diñofso):

ANTON'EK:—Begira, Martatxu... nire laguna izaten ba'zara... udabarrietan, ardi-zaintzen gabiltzazala, txistu polit onen otsean bedar guri ganietan lorarik-lora zeru urdiñari begira alaikiro ibiliko gara.

(Itz oneik amaitzeagaz Martatxu'k begi itunez begiratzen dautso, ta Anton'ek daukon txistua Jose Mikel'ena zala igarten dau).

MARTATXU'K:—Anton. Txistu ori ezta zuria... Jose Mikel'ena zan.

ANTON'EK:—Bai, neuria da.

MARTATXUK:—Ez, ezta...

(Eta beste barik neskatillak txistua kendu egiten dautso).

MARTATXU'K:—Bai... bai... txistu au Jose Mikel'ena zan. Begira bestela... Egiztuteko... jo egizu pizkat. Txistu onek, bere soñu otsean, neure lengo barrea irarrita daukon arren, oraingo aldiz negar intziriz ots egingo leuke-ta.

(Ori entzunik mutilla itun-itun jartzen da, ta beste barik oinkada legunez urtetan asten da. Oinkada batzuk eginikoan barrero neskeari begiratzen dautso abots itunez esanaz):

ANTON'EK:—Zure biotza negarrez geratzen da... ta... nik neurea negarrez daroat...

(Neskatilla txistuari begira negarrez geratzen da, esku biakaz arpegia ezalduta. Mutilla barriz geldiro-geldiro ate alderantza ayenatzen da. Gerotxoago baltzez jantziriko emakume bat agertzen da. Jose Mikel'en ama da, ta emakumea oinkada ixilez aurreratzen yako dirautsolarik):

MARI JOXEPA'K:—Martatxu laztana... orrenbestean etzaitetz atsekabetu... Jose Mikel neure seme on-ona zeruan dago-ta. Adoretu ta baretu zaitetz ba, Martatxu... Neu be atsekabe askoren artetik igaroa nozu... Eskondu ta bigarren urtean neure senar zintzoa Jaungoikoak eroan eustan... Eta... orain Jose Mikel kutun-kutuna... Neure senarra ilda lastertxora, ortxe arri-mokilean bertan jesarrita negarrez nengoala, pralle zartxo bat igaro zan bertatik, eta lekaide on arek, neure atsekabearen barri jakin ebanean, erruki andiz begiratuta esan eustan: «Zoaz Andra Maria' gana... Ama Naigabetuagana zoaz ta zeure atsekabearentzako gozogarrria bere biotzean aurkituko dozu»...

MARTATXU'K:—Itz orrek entzunda, zer egin zendun? Andra Maria' gana juango zifian, ezta?

MARI JOSEPA'K:—Bai, bere esana egifiaz, ermitatxu orretara juanda, Andra Mariari neure atsekabe guztiak agertu neutsozan, bere laguntza osoa eskatzen neutsola... Geroztik atsekabe ta naigabe guztietan Ama samur onen maitasun-zapi gozoak neure negar-malko guztiak legortu izan daustaz... neure gora-bera guztietan bere laguntza osoa izan dodalarik...

MARTATXU'K:—Neure atsekabe ta naigabe guztietan pozgarri benetakoa Andra Mari Naigabetua izango dalakoan nago neu be... Ama dogu ta...

MARI JOSEPA'K:—Bai, bai..., geure neke guztietan aringarria ta geure mingostasun guztien gozogarrria Andra Maria... Jaungoikoaren Ama ta geure Ama izango dogu... Guazzen ba bere ofietara.

(Au esanagaz, Martatxu maitekiro besarkatzen dau, ta emakume biak basotxonora juanda, bertako atian belaunbikotuta otoitz beroan jarzen dira. Bitartian iru edo lau neskatillak eleiz-abesti au abestuten dabe):

«Gogo larri ta biotz illunaz,
Ama, ikusi ba'gaizuz,
Poza dakarzun izar ederra
Ortzean ager zakiguz.
Goizeko izar argi-ekarle,
Gure atsegin onena,
Zuzendu gaizuz, erakusguzu
Zeruko bide zuzena...»

Mañari'ko Errose. 52'ko, 3'ren, 25'ean

Gurasoak ikasi

Guraso maiteok, nondik zabize? Nondik dabiz zuon seme-alabok? Entzun eta irakurri ta edestu an Sumatra'n oindiño antziña barrik jazo zan eriotz negargarri au.

Bixau edo eguerdi osteko loalditxoa egin eta etxetik urrun be ez egoan basoan algara ta diadarrak dagiez: Eee! Eeee! Suge bat! Suge bat!

Baso ondoko etxe atan senar-emazteak alabatxo bategaz bizi dira. Eizariak etozan beresi barrutik eta suge ikaragarri bat beresitik alde egiten. Beresi ondoko gizonak makilleagaz jo dau sugea ta ildakotzat itxi ta bere emazteari deitu ta diñotse: Au bai sugea. Au lakorik ez dot bein be ikusi.

—Ene bada, senar maite, zelakoa dan berori.

—Berorren narruagaz bakarrik be ainbat irabaziko dogu. Ekarri berealaxe alabatxua.

Ilda dago baña? Egiz, ilda dago gero?

—Bai, neure makil onegaz il dot eta ekarri alabatxua.

—Itxiozu alabeari bakean. Bildurtia be ba-da ta ez geunke gero bakerik eukiko.

—Orrexegaitik ba bildurra kentzeako be ekarri egizu. Baso onduan bizi gara ta suge asko dagozan ezkerro, askotxo ikusi bearko dauz eta ointxegandik ikasi dagian.

Gura ta gura ez amak ekarri bear bere alabatxua. Ekarri eban aitagana ta maitekiro agurtu eban alabeak aita: